



EUDEL
Elkarteburua
Gorka Urtaran Agirre
Ercilla Kalea, 13 - 48009 Bilbo

Jaun agurgarri hori:

Ikasturte hasiera dela-eta, EUDELeK, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskatuta, gure udalari egin dion eskaerari erantzutera nator.

Excel taulan bidali zaizue informazio zehatza: espazio erabilgarriei buruzkoa (Gazteleku gisa erabiltzen den eraikina) eta harremanetarako telefonoak.

Elkarlanerako prestutasun guztia adierazi nahi dizuegu; bai eta, era berean, ikasturte hasiera honetako **ziurgabetasunak biziki kezkatuta** utzi gaituela ere.

Atzo bertan, Ondarroako Udalak deituta, batzar bat egin zuten herriko ikastetxeek eta Osasun Zentroak. Zaldupe ikastetxe publikoko, Zubi Zahar herri ikastolako eta Ondarroa BHIko zuzendariak Ondarroako Osasun Zentroko arduradunekin elkartu ziren, Udal Hezkuntza batzordeburuarekin batera, ikasturte berriaren aurrean sortutako kezka eta zalantzak ahal zen neurrian argitzeko. **Izan ere, 10 egun baino ez dira geratzen ikasturte berriari ekiteko kezka eta ziurgabetasuna da nagusi.** Zentro guztietan ezin da segurtasun distantzia mantendu, Institutuan, adibidez, 32 ikasle daude gela batzuetan. Baldintza horietan oso zaila da egoera gobernatzea.

Ondarroako Udalak bere baliabideak eskaini dizkie ikastetxeei egoera berri honetan beharrezkoak dituzten gaitan laguntzeko. Udalak ez dauka eskumenik hezkuntza gaitan, baina ikastetxeei laguntzeko konpromisoa hartu du Eneritz Basurko Pagoaga Hezkuntza batzordeburuak.

Irailaren 21ean beste bilera bat egitekotan dira, ikasturteko lehen hamabost egunen balorazio bat egin eta jarraipena egiteko.

Hori guztia ikusita, **eskatu nahi dizugu horren jakitun ipintzea Hezkuntza saila.** Ikasturtea normaltasunez hastea nahi dugulako denok eta horretarako bitartekoak beharrezkoak dira, besteak beste, **ikasgelako ratioak jaiste eta irakasle gehiago kontratatzea.**

Horrenbestez bada, alde zuzenetik, eskerrak eman nahi dizkizut eskaera hau aintzakotzat hartzearen.

Ondarroa, 2020-08-27

Eneritz Basurko Pagoaga
Ondarroako jarduneko alkatea

